

Kutxabank Errenta Aldakorra Mistoa 60 Pentsio Fondoaren arrisku-maila 5 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurretiazko iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

•• Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoan araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.  
•• Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabera aldatu daiteke eta galera nabarmenak eragin ditzakete.  
Indarreko araudiarekin bat etorruta, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean argitaratuta. Kutxabankeko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: [www.kutxabank.es/pentsioplanak](http://www.kutxabank.es/pentsioplanak)

ERRENTA ALDAKORRA MISTOA 2024/URRIA/31

# KUTXABANK

## ALDAKORRA MISTOA 60 PF



### INBERTSIO POLITIKA

Ondarearen % 60, gehienez ere, fondoaren inbertsio-bokazioarekin bat etorruta inbertituko da, Errenta Aldakorrean; ondarearen gainerako zatia nagusiki inbertituko da ageriko edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publiko edo pribatua. Unean uneko egoeraren arabera, % 2 gainditu ahal izango da errenta aldakorreko maximoa, etenik gabeko hilabeteko epean, gehienez ere. Fondoak aktibo motekiko duen esposizioa lortzeko, inbertsio zuzenak egin ahal izango dira horietan, baita inbertsioak ere finantza-tresna eratorrietan. Pentsio-fondo honek ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu (2019/2088 Erregelamenduaren (EB) 8. art.).

### EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	386.188.565,29€
Kudeatze-Komisioa:	%1,50
Gordailatze-Komisioa:	%0,20
Arrisku-profila:	5
	1etik 7rako eskalan

### 2024/10/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa	3 hilekoa	Urtekoa	Urte 1	Urte 3	Urte 5
-%1,13	-%0,05	%5,32	%12,99	-%0,37	%2,17

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2024	2023	2022	2021	2020	2019
%5,32	%9,88	-%14,77	%8,29	%2,07	%13,41

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

### 2024/10/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte	%4,84
Lurrunkortasun 3 urte	%7,57


### HILEKO IRUZKINA

Urrian, industria osoaren bilakaera txararen jarraipen bat deskribatzen jarraitu du, eta horrek eragina izan du hainbat geografiatako eremu ezberdinen joeretan, AEBek hazkuden sendoa erakusten duelarik, kontsumoaren indarrak bultzatuta, ta aldiz, beste eremu batzuetan, hala nola, Europan, adierazleak oraindik ahul agertzen direlarik. Txinak, nahiz ta iraila baikortasun handiarekin bukatu zuen, krisialdiaren aurkako pizgarrien plan indartsuak bultzatuta. Urrian, aldiz, zalantza itzuli dira higiezinaren burbuilaren leherketa leheneratzeko ahalmenaren inguruan, eta horrek ekonomia orokorrean izan ditzakeen ondorioen inguruan. Eta, nahiz eta oro har inflazioak moderazio


seinaleak jarraitu duen ematen, bereziki ahula izaten ari da Europan, non erregistroak moneta-agintarien helburuekin lerrotatu diren. Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralaren interes-tasen jaitsiera-zikloan aurrerapausu berri bat ikusi da berriz ere. Nahiz eta jaitsieren etengabeko erritmoari eusteko zailtasunak izan dituen, merkatuari igorritako mezuan, geldialdiagatik kezkatuta dagoela adierazi du. Oro har, ezjakintasun politikoa izan da nagusi. Japoniako gobernu berriaren ahultasuna, Alemaniako gobernuko tira-birak, Ekialde Ertaineko gerraren inguruko kezkak, besteak beste, eta, jakina AEB-ren etorkizunaren inguruko zalantza ugari

ondorioz, non inkestean ez zituzten uzten argi panorama, baina finantza merkatuek abantaila argia eman diote Trumpen administrazio berri bati. Eta horrek guztiak sortzen duen ziurgabetasun guztiarekin, eta haren ekintzen auresangarritasun konplexua dela-eta, haren zerga-murrizketen politika erasokorra jarri da balioan. Gastuak murrizteko kontraktantua argirik gabe, defizit publikoa igo lezake eta, horrela, interes-tasen jaitsierak geldiarazi. Horrekin guztiarekin, burtsa nagusiak erortzen bukatu dute, AEBan, S&Pek -%0,99, Dow Jonesak -%1,34 eta Nasdaqek -%0,85. Europan, Eurostoxxek -%3,46 galdu du, eta Ibx35 izan da kalte txikiena izan duena (-%1,72).


Asian, Nikkei indizeak Nikkeiaren %3,06 irabazi du. Shanghaik, aldiz -%1,7 galdu du. Bukatzeko, suspertze bidean direnek -%4tik gora galdu dute. Errenta finkoan, zorraren interesak igo dira. 10 urterako bonuak %4,28an bukatu du (+50 pb) eta 10 urterako tasa alemanak %2,39an (+27pb). Zor periferikoak Alemaniaren aurkako aldea murriztea lortu du, errenta finko pribatua apenas handitu da zorraren aurka, eta 12 hilabeterako Euriborra %2,55era jaitsi da. Dibisei eta lehengaiei dagokienez, dolarrak indarra irabazi dau euroarekiko, Brent gordinaren prezioa pixka bat igo da 73\$/upelera iritsiz, eta, bitartean, urrearen prezioak %4,15 egin du gora, %33 irabazia lortuz urtean.



### Zorroaren banaketa



### Errenta Aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



Oharra: hiru hilabete baino gutxiagoko epemuga duen errenta finkoa likideziaren barne dago.

Dokumentu honen helburua da informazioa ematea, eta ez da inola ere kontratu-dokumentu bat, gomendio bat, aholku pertsonalizatua, eskaintza edo eskaera. Ezin da hartu edozein inbertsio-erabakiren aurretik kontsultatu behar den legezko informazioaren ordezkatzea, eta legezko informazio hori izango da nagusi desadostasunik sortuz gero. Inbertsioak merkatuen gorabeherari lotuta daude, baita baloreetan eta beste finantza-tresna batzuetan inbertitzeari dagozkion beste arrisku batzuek ere. Beraz, Pentsio Fondoaren eskurapen-balioak eta errentagarritasunak garrantzko zein beharrezko aldatuak izan ditzakete, eta baliteke inbertitzaile batek ez berreskuratzea hasieran inbertitutako zenbatekoa. Pentsio Fondoaren informazio-dokumentu guztiak (hala nola Oinarritzko Datuen Agiri, Inbertsio Politikaren Printzipioen Adierazpena, aldizkako informazioa, inbertsioen xehetasunak, etab.) entitate merkatuzaleen webgunean kontsulta daitezke.

Kutxabank Errenta Aldakorra Mistoa 60 Pentsio Fondoaren arrisku-maila 5 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurreitazio iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

👁️ Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoaren araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.

👁️ Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoren balioa pentsio-fondoaren aktiboaren merkatuko balioaren arabera aldatu daitezke.

Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarritzko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean argitaratuta. Kutxabankeko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: [www.kutxabank.es/pentsioplanak](http://www.kutxabank.es/pentsioplanak)



## KUTXABANK PENSIO PLANEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, **zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.**
- **Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko** malgutasun osoarekin.
- **Inbertitzeko politika desberdina duten Kutxabank Pentsio Plan desberdinen artean zure aurrezkiea askatasunez mugitzeko aukera,** zure profilararen arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako pentsio plana denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.**

## GAINERA, KUTXABANK ALDAKORRA MISTOA 60 PLANAK HONAKO ONURA HAUEK IZANGO DITU:

**KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA,** inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA,** dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

**ARRISKUAREN KONTROLA.** Aktiboaren analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

**EGUNEROKO JARRAIPENA**

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen, Kutxabank Pentsio Planekin:**  
**SIMULAGAILUA**



## PENSIOPLANAK